ASTEKARIA | 2014ko otsailaren 14an | XVII. urtea | USURBIL | 562. zenbakia | www.noaua.com

TOKIKOM

# noaua



Udako eskolak, dakiguna besteekin partekatzeko

53 lagun batu ziren Andatzak antolatu zuen irteeran

Igande honetan, Joseba Tapiaren kantaldia Sutegin

Oinatz Iparragirre Arregi

## Bartzelonako Euskal Zinemaldiko irudi nagusia

## Tapak eta aurkibideak prest




**Agur esan diogu 2013 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2013ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.**

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

## OGI BERRI
ARTISAU OKINAK

ETA ORAIN...
IKUSI FUTBOL PARTIDUAK GUREKIN!



egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)
PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)

Sarreren salmenta
bastero KULTURGUNEA | Kutxabank zerbitzuen bidez

ANDOAINGO UDALA
Gipuzkoako Foru Aldundia
bastero KULTURGUNEA







Andoain Ekitaldiak 943.303.540 http://basterokulturgunea.blogspot.com.es

## Albistea iruditan

# Hamaika Telebista eta Udalaren arteko lankidetza hitzarmena



Mertxe Aizpurua alkatea eta Iñaki Uria Hamaika Telebistako ordezkaria, pasa den ostiralean Potxoenean.

Honetan ere, aitzindari izan zen Usurbil. Iñaki Uria Hamaika Telebistako ordezkariak ekarri zuen gogora: "Usurbilgo Udalarekin sinatu genuen lehen hitzarmena". Xabier Mikel Errekondoren garaian izan zen. Hitzarmen berri honek 2014ko abenduaren 31 bitarteko iraupena izango du.

Akordio honen baitan, *Gurean gaur* telebista magazinean, Usurbilgo albisteak txertatuko dituzte. *Hona hemen* izeneko lau erreportaje labur ekoitzi eta eskainiko dira 2014an eta publizitate tartean ere babesle gisa agertuko da Usurbilgo Udala. Trukean, 6.000 euroko diru-laguntza eskainiko dio Udalak Hamaika Telebistari. Udalak eduki horiek bere web orrian txertatzeko eskubidea izango du.

Mertxe Aizpuruak aditzera eman digunez, "euskal hedabideak eta telebista arloan euskaraz egiten diren eginkizunak babestea eta sustatzea da gure helburua. Behar beharrezkoa den zerbait dela iruditzen zaigu. Kontuan izanda telebista batek ze gastu kopurua duen eta zein zaila den telebista arloa garatzea, laguntzarik gabe. Horrek eraman gaitu Hamaika TBrekin hitzarmen hau sinatzera. Eta horren truke, Usurbilgo herriak onura batzuk jasoko ditu. Presentzia izango du Hamaika Telebistan eta hori usurbildarrentzat ona izango delakoan gaude".

## Laburrean

### Afari beganoa gaztetxean

Otordu goxo askoa prestatuko dute, hilero bigarren ostegunetan egin ohi duten moduan, otsailaren 13 honetan, iluntzeko 20:30etatik aurrera Usurbilgo Gaztetxean. Beti bezala, borondatearen truke.

### Barrikotea Erroizpen

Larunbat honetarako, otsailaren 15erako antolatu dute hitzordua Erroizpe elkarteko bazkideentzat, arratsaldeko 14:00etan hasita.

Otorduan izena emateko, otsailaren 9ra arteko epea zuten.

### 1956koen kinto afaria

Otsailaren 22an, larunbatez bilduko dira Antxeta jatetxean. 1956an jaio ziren herritarrek, afaritara joan nahi badute, telefono zenbaki honetara deitu behar dute, otsailaren 21a baino lehen: 648 755 316 (Guillermo Tapia).

noaua
Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.com /// www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Ana Aizpurua.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Bea Alda, publizitatea@noaua.com.
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.
**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Aizpea Aizpurua.
**Banaketa:** Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege-Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.
**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARARI

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



**Nerea Zinkunegi**

# Gallardoni, apezpiku batzarrari, eta beraien sekito sainduari

Ilea moztu edo burua rapatu, bekainak depilatu edo bere horretan utzi, belarritakoak jarri edo bat ere ez, ezpainak margotu edo baselina eman, lepokoak jantzi edo lepo soila erakutsi, besazpiko porru bizarrak kendu edo dauden bezala aireratu, titi-zorroak erabili edo grabitatearen dantzara utzi bularrak, kamiseta zabala jantzi edo zilborra bistan uzten duena, tatuajea tripa azpian gozamenerako bidea seinalatuz edo "marka gehiagorik ez, mesedez", bainujantzia jantzi edo biluzik hartu eguzkia, bagina ileduna edo plastikozko panpinen moduan depilatua, jai egunetan txandala edo arrantzarako gona motza, galtzerdi marradunak edo oinutsik, txankletak edo zapata koxkordunak, masturbatu edo norbaitekin larrua jo, honekin edo haiekin, "nahi dudanarekin nahi dugunean" edo monogamia, ama izan edo ez izan.

Gure gorputzekin nahi duguna egin nahi dugulako, abortu librea eta doakoa, Kabroiak!!!

Zer daukazue ba zuek esateko, Zer? NBEa (Nazio Batuen Erakundea) ere belarrietatik tiraka duzuenean mundu osoan zehar dozenaka milaka adin txikiko, zigorgabetasun osoz, inpunitate osoz, eta modu sistematikoan, bortxatzen dituzuelako. Mekaguen...!!! Bataiatuta nagoela pentsatzea ere...

Aritz Gorriti | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai | Luis Aranalde | Maialen Unanue | Joxe Piñas | Imanol Ubeda | **Nerea Zinkunegi**

# Andoni Sagarna, Euskaltzaindiaren hiztegiko zuzendari berria

NOAUA! Kultur Elkarteko lehendakari ohiak zuzenduko du aurrerantzean, "Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak" egitasmoa, Ibon Sarasolaren ordez. Hala berretsi zuen Euskaltzaindiak urtarrilaren 31n burutu zuen osoko bilkuran. Aurreko zuzendariak, Ibon Sarasolak 2013. urte amaierara arte zuen kontratua ez du berritu. Sagarna, euskaltzain osoa eta Gipuzkoako ordezkaria izango da beraz aurrerantzean, Euskaltzaindiko hiztegi lanak zuzenduko dituena. Egitasmo berri hau kudeatzeko lan taldean izango ditu baita, Miriam Urkia euskaltzain urgazle eta Hiztegi Batuko lantaldeko burua, eta Jose Antonio Aduriz, euskaltzain urgazle eta Hiztegi Batuko lantaldeko kidea. Urkiak egitasmoko arduradun lanetan jardungo du, eta Aduriz aholkulari gisa arituko da.



## Diru-laguntzak eskatzeko garaia

Lau diru-laguntza deialdi egin ditu Udalak. Kulturakoak, Ongizatekoak, Kiroletakoak eta Ingurumenekoak. Otsailaren 26a izango da eskaerak aurkezteko azken eguna.

Deialdi bakoitzean aurkeztu beharreko dokumentazioa eta eskaera orria eskuragarri dituzue Udaleko web gunean edota Udaletxean bertan. Baita Usurbil Kultura web orrian ere.

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero.
Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia.
Hurrengo alea: otsailak 21. Idatzia ekartzeko azken eguna: otsailak 17.









# Mobilizazioak, espetxe politika salatzeko




**Arkaitz Bellonen heriotzaren ondorioz hainbat mobilizazio izan dira azken egun hauetan.**

Bi egunez elkarretaratze bana burutu zen Usurbilen, "Espetxe politika honi ez. Sakabanaketa amaitu!!!" lelopean. Arkaitz Bellon euskal preso elorrioarraren heriotzaren harira deitu zituzten mobilizazioak Euskal Herriko 30 eragile inguruk, beste behin, egungo salbuespenezko espetxe politika salatu eta sakabanaketa amaitzea exijitzeko. Eragileok zioten moduan, Belloni gertaturikoak "ez du gehiago gertatu behar".

Gazte elorrioarra, sorterritik 1.000 kilometrotara zendu da, Puerto I espetxean. Zigorraren bi herenak beteak zituenez, dagoeneko kalean behar zuen. Maiatzean betetzekoa zuen espetxe zigor osoa.

# Bideo emanaldia gaztetxean, Torturaren Aurkako Egunean

Igande honetan, otsailak 16, arratsaldeko 18:00etatik aurrera Usurbilgo Gaztetxean antolatu dute ekimena, Usurbilgo Gazte Asanbladak eta Ernai Usurbilek. Torturaren erabilera ardatz nagusi duen ikus-entzunezko lan honek, errealitate latz hau jasan duten pertsonen, abokatu, mediku edota aktibisten lekukotzak jasotzen ditu. "120 ordu" du izenburu dokumentalak.

Torturaren Aurkako Egunaren harira, idatzi bat ere plazaratu dute antolatzaileek. Otsailaren 13an eta 16an kalera ateratzera deitzen dute, "torturak izan duen erabilpen politikoa agerian utzi eta herri honek bizi izan duen eta egun ere gure artean dagoen errealitaterik beltzena jendartean zabal dezagun, sekula ahaztua eta hortaz errepikatua izan ez dadin".



**Igande honetan, 18:00etan emango dute bideoa.**

## Ikurrinak eskuragarri zazpi gunetan

Usurbilen ere Espainiako bandera jartzera behartu dute Udala, Espainiako Gobernuko Ordezkaritzaren errekerimenduz lehenik eta epai bidez gero. Herritar gehienen borondatearen aurka, eta zigorraren mehatxupean inposatutako ikurra dela gogorarazten du, Usurbilgo EH Bildu, EAJ-PNV eta Hamaikabat udal taldeek batera kaleratua duten adierazpenak.

Horregatik, herritarrak etxeko balkoi eta leihoetan ikurrina jartzera deitzen ditu Udalak. Ikurrinarik ez duenak, zazpi guneotako batean eskura dezake, doan:

- Udaletxeko erregistroan
- Sutegi Udal liburutegian
- Oiardo Kiroldegian
- Artzabal tabernan
- Aginagako Arrate egoitzan
- Santueneko zahar egoitzan eta auzo elkartean
- Zubietako Herri batzarrean

## Gure Pakeako txapelketak

Bazkideen arteko joko gehiago antolatu dituzte datorren asterako. Musa, otsailaren 18rako, igel eta toka jokoak otsailaren 20rako. Saio guztiak, arratsaldeko 16:00etatik aurrera, Artzabalen. Otsailaren 20ko jokoen amaieran, sariak banatuko dira eta askaria dastatzeko aukera izango dute, txapelketa hauetan parte hartu duten lehiakide guztiek.



**Mus, igel eta toka txapelketak iragarri dituzte datozen egunetarako.**






# Udako eskolak, dakiguna




Duela hiru urte, Itayako komunikazio lan taldean proposatu zuten egitasmo hau. Atzeratzen joan da eta "egoskorkeriaz aurten antolatzea proposatu dugu", egitasmoaren sustatzaileek aditzera eman digutenez.

Denok dugu zerbait esateko. Hala diote antolatzaileek. Dakiguna besteei irakatsi diezaiokegu. Besteengandik ere beti izaten dugu zer ikasia; ikasketak, bizi esperientziak, zaletasunak, abileziak... Zer partekatua badenez, herritarren jakinduria horri guztiari irteera eman nahi dio herriko gazte talde batek, datorren uztailerako, adin guztietako herritar ororentzat antolatzen ari den udako eskoletan. Ekimen honetako irakasle izan daiteke zuetako edonor. Eskolaren bat emateko interesa duzuenontzako izen ematea ireki dute jada. Librea izango da parte hartzea, gaia edo eskola formatua. Zehaztasun gehiago, lerrootan.

**Zerk animatu zaituzte udako eskolak antolatzera?**

**Ugaitz Agirre:** Duela hiru bat urte, Itayako komunikazio lan taldean ginenean jada, halako ekimen bat antolatu nahi genuen. Baina atzeratzen joan gara. Egoskorkeriaz, antolatzea proposatu dugu aurten. Gazte asanbladan baiezkoa atera zen. Handik bizpahiru astera deituriko asanbladan, lan taldea osatu genuen. Oraingoz, Usurbilgo hainbat kultur taldeei proiektua aurkezten ari gara. Antolaketa lanak abiatu berri ditugu, garaiz ibiltzeko eta eskolaren bat eman nahi dutenek, prestaketa lanetarako denbora izan dezaten.

**Eskolak emateko parte hartzaile bila zabiltzate. Zer profiletako parte hartzaileak eta zertarako?**

Azken asanbladan, gaztetxeak bere garaian plazaratu zituen lehen eskuorriak begiratzen hasita, eskuorritako batek norberak dakiena besteekin partekatu, edo halako zerbait zioen.

UGAITZ AGIRRE

***"Edonork, gazte edo heldu izan, edozein adinetakoa, besteekin partekatu dezakeen edo besteek ikasi dezaketen gairen bat badu, anima dadila udako eskoletan izen ematera"***

Azkenean, horixe da helburua. Edonork, gazte edo heldu izan, edozein adinetakoa, besteekin partekatu dezakeen edo besteek ikasi dezaketen gairen bat badu, anima dadila udako eskoletan izen ematera.

**Ezagutzak partekatzea da hain zuzen, udako eskolen helburu nagusia?**

Neure kasuan adibidez, unibertsitateko gairen bat emango nuke, ikasten ari naizen zerbait.

Heldu batek adibidez, sukaldaritzako tailerren bat eskaini dezake, bere gaztetako kontuak kontatzen aritu... Formatu librean presta daitezke saioak. Ez dago zertan mahai baten aurrean hitz egin beharrik, gainerakoak eserita dauden bitartean, ohiko klase bat balitz bezala. Kasu batzuetan hala izango da noski, baina ez du zertan hala izan beharrik.

Bakoitzak esan dezala zer irakatsi nahi duen, modurik onenean. Batzuei gainera, jendaurrean klasea emateak praktika moduan ere balioko die.

**Ez da derrigorrezkoa, nork bere prestakuntza akademikoari lotutako eskola ematea? Abileziak edo bizi esperientziak ere partekatu daitezke udako eskoletan?**

Bai, hartara helduak ere gertura daitezke. Bestalde, askotan hitzaldietarako adituak ekartzen dira. Gure kasuan karrera bat egiten aritu gara lau urtez. Zerbait jakin arren, agian besteekin partekatzeko beldurra dugu. Kasuotan, aukera bat emateko da. Askotan halako gaiak ateratzen dira, barra ertzean trago batzuk edatean eta ordu luzez hitz egiten egoten ari gara, eztabaidan. Zergatik ez udako eskola batean?

**Bere jakintzak partekatu nahi dituen horrek, udako eskoletarako prestatzen joateko zer egin dezake?**

Lehenbizi izena ematea. Eskola bat eman nahi duenak, saiorako behar duen materialaz gu arduratuko ginateke. Gero denboraz, udako eskolak antolatzen joateko bilera bat egingo genuke, parte hartu nahi duten guztiekin. Parte hartzaile taldea osatzen dugunean egingo genuke eskolen antolaketa guztia, egun eta orduen arabera. Oraingoz, interesatuak zaudetenok, izena eman ezazue.

# besteekin partekatzeko

**NOAUA! Aurrerago irekiko duzue ikasleentzako izen ematea?**

**Ugaitz Agirre.** Pentsatuko dugu nola egin, baina bideratuko dugu. Oraindik pare bat asteko kontua da hau. Pixkanaka ari gara.

Orain, egitasmoa zabaltzen ari gara, garaiz, eskolak emateko parte hartzaile kopurua esanguratsua izan dadin. Eta gero joango gara ikusten, ikasleen izen ematea noiz egin.

**Udako Eskola planteatzerakoan, bestelako eredurik baliatu duzue?**

UEU ezaguna zaigu, beste batzuk ere. Askotan izaten dugu garai bat, eskolak atzerakoa ematen diguna. Gero gainerakoentzat hezkuntza beharrezkoa dela iruditzen zaigu.

Beste tokietan halako ekimenak egiten direla ikusita, Usurbilen zergatik ez? Ereduren bat baliatuta baino gehiago, egoskorkeriagatik antolatu ditugu udako eskolak, hemen ez dugunez, beharrezkoa ikusten dugulako.



Ugaitz Agirrek eman dizkigu egitasmo honen inguruko xehetasunak.

**Eskoletarako gaiak ere proposatu daitezke?**

Lagun artean, batzuk jaso ditugu. Antolatzaileok eskolaren bat ere emango dugu. Bost bat izango gara behintzat. Kultur talde desberdinei zabaldu diegu egitasmoa. Eurek ere beren inguruan zabaltzea eskertuko genuke. Animatzen dena, besteekin partekatzeko zerbait duenak, gurekin harremanetan jar dadila. Eskoletarako proposamenik duena ere bai.

**UGAITZ AGIRRE**

***"Kultur talde desberdinei zabaldu diegu egitasmoa"***

## Eskolak eman nahi dituztenentzako izen ematea zabalik

Hezkuntza modu kolektiboan landu eta nork bere ezagutzak besteekin partekatzea sustatzeko eskolak antolatzen dabil Usurbilgo gazte talde bat, datorren uda parterako. Uztailaren 7tik 11rako astean burutu asmo dituzten saio hauetarako partaide bila dabiltza. Beraz, zuetako edonork dituzuen ezagutzak gainerakoekin partekatu nahi baditzuzue, jar zaitezte harremanetan udako eskolako antolatzaileekin. "Berdin dio zein izan dezakeen konta dezakezun gaia, gustura entzungo dugu", berri eman dute.

Adin mugarik ez dute finkatu, "denak ongi etorriak izango zarete gure jakin mina asetzeko". Euskaraz eskainiko diren ordubeteko saioak aurreikusten dituzte, eta "euskaraz moldatzen ez denari gazteleraz egiteko aukera eskaintzen diogu". Formatu eta gai libreko eskolak izango dira, eta saio hauetarako beharrezkoa den "materialaz gu arduratuko gara". Materiala aipatuta, saio hauetan jorratuko diren gaiekin liburuxka edo bideo bat osatu asmo dute antolatzaileek, landutakoa erregistratua gera dadin, eta "horrela, egon ez denari ere ikasteko aukera emanez".



Uztailaren 7tik 11ra egingo dira udako eskolak.

Adin tarte orori zuzenduriko usurbildarrek parte hartzeko aukera izango dute udako eskoletan. Uztailaren 7tik 11ra aipatu moduan. Udako eskola hauetan parte hartzeko gonbita luzatzen diete herritar orori, "denok dugu eta zerbait esateko".

Hiru helbideok jarri dituzte antolatzaileek, eskola hauetan parte hartu nahi duten guztien eskura:
luken1992@hotmail.com (Luken)
xalbador_2@hotmail.com (Ugaitz)
usurbilgogaztetxea@gmail.com

# Giza-katerako girotzen, Gure Esku Dago taldearen deialdiak

Erabakitze eskubidearen alde, ekainaren 8an Durango Iruñearekin lotuko duen giza-katea girotzeko lanetan dabil Gure Esku Dago Usurbil bilgunea. Ekimenari babesa adierazteko ondoko argazkia atera zuten usurbildarrek, otsailaren 2an. "Gazta zati bat" filma proiektatzekoak ziren joan berri zaigun asteburuan.

Eta aste honetarako ere ekimen gehiago iragarri dituzte. "Eskuz esku" furgoneta ibiliko da asteazken arratsalde partean Usurbildik, ekainaren 8ko giza-katearen berri ematen. Usurbilgo lan taldeak gainera, herriko zenbait saltokiren laguntzaz, eskuorriak jarri dituzte bezeroen eskura zenbait dendetan. Datorren asteburuari begira, beste bi hitzordu; batetik, ostiral arratsaldetik aurrera, kirol jarduera ezberdinei loturiko neurketak ospatuko dira. Eta igandean, bazkalaurreko poteoan, ekainaren 8ko giza-katerako izena eman ahal izango da. Eguraldi ona bada, Gure Esku Dago bilguneak Mikel Laboa plazan jarri asmo duen mahaian.

Gogoan izan, giza-katean parte hartzeko aurrez izena eman beharra dagoela. Herritar bakoitzak metro bat erosi behar du 5 eurotan. Trukean, 123 kilometro luze izango dituen ekimenerako motxila eta zapi bana jasoko du. Euskal Herri osoan gutxienez 50.000 lagun biltzeko erronka jarri dute antolatzaileek. Usurbilen 400 bildu nahi dituzte. Herritarrak jada apuntatzen hasiak dira. Ekainaren 8ko erabakitze eskubidearen aldeko ekimenean parte hartzeko eremua zehaztua dute usurbildarrek; Uharte-Arakilera gerturatu beharko dute.




**Giza-katean izena emateko aukera izango da igande honetan, Mikel Laboa plazan.**

**Hitzordu gehiago deitu ditzakete**
Hauexek momentuz, Gure Esku Dago bilguneak egunotarako deitu dituen ekimenak. Jarraian zehaztuago, ordutegi eta guzti. Egitaraua ordea behin behinekoa da, aldaketak izan ditzake. Hitzordu gehiago deitzea ere aurreikusia baitute:

**Otsailak 12, asteazkena**
18:00 "Eskuz esku" furgoneta Usurbildik.

**Otsailak 14, ostirala**
18:45etatik aurrera, futbol, eskubaloi, pala eta eskupilota partidak.

**Otsailak 16, igandea**
12:00etatik aurrera eta bazkalaurreko poteo orduetan, giza-katean izen emateko aukera. Eguraldi ona bada, Mikel Laboa plazan jarriko dute apuntatzeko mahaia.

# Intza Salsamendik irabazi du Soinurbilen Logotipo Lehiaketa

Epaimahaiak ez du lan erraza izan, guztira urtarrilaren 31ra arte finkatua zegoen epearen baitan, 15 logotipo aurkeztu baitira. Azken erabakia hartu du ordea epaimahaiak, eta ezagutzera emana du. 2014ko martxoan ospatuko den Soinurbil Musika Zikloaren 10. edizioaren harira, Zumarte Musika Eskolak eta Usurbilgo Udalak elkarlanean antolatu duten logotipo lehiaketako irabazlea, Intza Salsamendi dugu.

400 euroko saria irabazi du usurbildarrak, "Aterkia" ezizenez aurkeztutako lanarengatik. Saria Intzari ematerako orduan, epaimahaiak "lan irabazlearen balio artistikoa eta diseinu berritzailea nabarmendu ditu". Gogoan izan, logotipoa sortzeko lehiaketako antolatzaileek finkatua zuten baldintza nagusia zein zen; "hiru ardatz bildu behar zituen: Usurbil, musika eta hurbiltasuna". Intza Salsamendik modu honetan aurkeztu zuen lehiaketara, bere sormen lana; "Marka honek, Soinurbileko "S" hizkiaren forma erabiltzen du, "vinilozko" diska irudikatuz. Honek soinua adierazten du eta lau koloreen erabilerak mugimendua ematen dio. Borobiletan dauden geziek soinua Usurbilera hurbiltzen dute. Erabilitako tipografia informalak freskotasuna eta gaztetasuna ematen dio".

**Martxoan ezagutuko dugu logotipoa, Soinurbil jaialdiaren egunetan**
Eta horixe da Soinurbilen 10. urtemugari lotuta, usurbildarrak sortu duen logotipoari buruz aurreratu dezakeguna. Logotipoak zer nolako itxura duen ikusteko zertxobait itxaron beharko dugu oraindik. Martxoan ospatuko den Soinurbil ekimenaren egitarauarekin batera aurkeztuko dute, Salsamendiren diseinu lana.

## Adinekoen zaintza lanen inguruko ikastaroa antolatu du DYAk

Martxoaren 17tik 21era Munalurra 26ko egoitza berrian eskainiko dute "Zahartzea: zaintza eta autobabesa. Teoriatik praktikara" izeneko ikastaroa.

Adinekoen senide eta zaintzaileei zuzendua dago ikastaroa. Saioak, aipatu moduan, martxoaren 17tik 21era, egunero eta goizez, 9:00etatik 13:00etara. Matrikularen prezioa, ikastaroko eduki guztiak biltzen dituen eskuliburua barne dela, 110 eurotakoa izango da.

Plazak mugatuak izango dira, "irakatsitako prestakuntzaren kalitatea bermatzeko asmoz".

Izen emateko edo argibide gehiago, 943 46 46 22 telefono zenbakian.

# Sagardorako sagarrondoak landatzen dituztenentzat, diru laguntza deialdia

Gipuzkoan sagardorako sagarrondoak landatu, zaindu, hobetu eta garatzeko diru laguntzen 2014ko deialdia onartu berri da. Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko departamentuak 40.000 euroko diru poltsa aurreikusi du.Eskabideak egiteko epea otsailaren 28an amaituko da.

Sagarrondoen landaketen prestaketa lanak urte naturalarekin bat ez datozenez, 2013ko azaroaren 1etik aurrera hasitako inbertsioak ere lagungarriak izan daitezke. Eskabideak egiteko epea otsailaren 28an amaituko da.



Otsailaren 28an amaituko da eskaerak aurkezteko epea.

Diru laguntza honetako eskatzailea bakarkako titularra izan daiteke edota ustialeku baten ordezkaria.

## Sagardo berria ezagutzeko dastaketak

2014ko txotx garaiari begira, Sagardoaren Lurraldeak hainbat dastaketa antolatu ditu. "Hauxe da proposamena, sagardotegia bisitatzea eta upeltegiko kupel ezberdinetatik dastaketa gidatu bat egitea", aditzera eman digutenez.

- Otsailak 15, 11:00etan: Zapiain, Astigarraga.
- Otsailak 22, 11:00etan: Saizar, Usurbil.
- Martxoak 8, 11:00etan: Gurutzeta, Astigarraga.
- Martxoak 22, 11:00etan: Zapiain, Astigarraga.
- Martxoak 29, 11:00etan: Saizar, Usurbil.
- Apirilak 05, 11:00etan: Zapiain, Astigarraga.

Erreserbak, Sagardoaren Lurraldea: 943 550 575.

# Sagar ekoizleentzako ikastaro praktikoa

Sagar-ekoizle guztiei zuzendua dago. Sagargintzan hasi berri direnentzat, nahiz jada arituak direnentzat. Ustialeku baten jabe direnentzat nahiz baserrian sagarrondo batzuk dituzten horientzat. Sagar-ekoizpena hobetu nahi duen orori zuzendua dago ikastaroa. Alkartasuna Kooperatibak antolatu du, Fraisoro Eskola eta HAZIrekin elkarlanean. Aitor Etxeandiak gidatuko du.



Argazkian Aitor Etxeandia, iazko ikastaro batean azalpenak ematen. Larunbat honetan hasiko da ikastaroa Potxoenean.

- Hasiera data: otsailaren 15a (larunbatetan).
- Ordutegia: 9:30-13:30.
- Irakaslea: Aitor Etxeandia (Sagarlan).
- Helburua: sagarrondoak landatzeko eta inausteko oinarrizko teknikak eta sagarrondoen zaintza lantzea.
- Hizkuntza: euskaraz.
- Metodologia: teoriko-praktikoa. Martxoa, apirila eta maiatzean zehar baina ez astebуru guztietan.
- Matrikula: 36 euro. 3035-0450-19-4500000391. Kontzeptuan jarri 78 eta bi abizenak.
- Izenematea: 943 692 166 (Fraisoro) fpefraisoro@hazi.es

Alkartasuna Kooperatiba: 943 361 114.

# “Aurreneko aldia izan da modelo lanetan,


Aste honetan hasiko den Bartzelonako Euskal Zinemaldiko kartelean ageri den modeloa Oinatz Iparragirre da.

James Bond-en paperean, baina euskal ukituarekin. Txapela, abarka edota gerrikoa jantzita. 007 agenteak eramango lukeen armaren ordez, eskutan kamera bat duela, egun bizilekua duen hiriburuko dorre ezagun baten parean. Modu honetan iragarriko du Oinatz Iparragirre Arregi usurbildarrak, ostegun honetan bertan, Herrialde Katalanetan estreinatuko den “Zinemaldia.cat” mostraren bederatzigarren edizioa. Bartzelonako Euskal Etxeak antolaturiko ekimen honen bidez, Euskal Herriko ikus-entzunezko ekoizpenen hiriburuan bilakatuko dute hiriburua, otsailaren 13tik 22ra arte.

Aurtengo edizioa iragartzeko kartel burua dugu Oinatz, lan kontuengatik duela urtebete Mediterraneo aldera bizitzera joandako herritarra. Usurbilen bizi zela lanik gabe geratu eta lan eskaintza bat suertatu zitzaiolako joan zen iazko martxoan Herrialde Katalanetara. Gustura dabilela aitortu dio NOAUA!ri. Eta egunotan ospatuko duten Bartzelonako euskal zinemaldiko kartel buru bilakatuta, oso pozik da.

**Duela urtebete lanera joan eta orain Bartzelonako Euskal Zinemaldiko kartel buru. Nola izan da hau guztia?**
**Oinatz Iparragirre Arregi:** Neure lagun Ibai Iturriak, zinemaldiko zuzendariak proposatu zidan kartelean ateratzea. Segituan eman nuen baiezkoa. Nola ez ba? Gero Ibaiek Euskal Etxearekin hitz egin zuen, ia ni kartelean agertzeko arazorik edo ba ote zen. Ezetz, ez zutela arazorik. Eta aurrera jarraitu genuen.

**Kartel honen atzean, argazki saio luze bat egon al da?**
Kartelerako gairen bat aurkitu nahi zuten. James Bond irudikatzea bururatu zitzaien, baina euskal ukituarekin. Hortik dator txapela edo gerrikoa jartzea. Probak egin genituen baso erdi batekin, Santa Agedako makilarekin. James Bonden pistola simulatzeko kamera bat ageri da. Hiru bat orduko argazki saioa izan zen. Argazki piloa atera genituen. Kartelaren fondorako Bartzelonako Agbar dorrea hautatu zuten.

> OINATZ IPARRAGIRRE
> *“Oraindik ez dut sinistu guztiz, kartelekoa ni naizenik. Baina oso gustura nago”*

**Zer inpresio izan zenuen zure burua lehen aldiz kartelean ikusi zenuenean?**
Hasieran ez nuen uste ni nintzenik, diseinugileak proba asko egin baitzituen. Fondo asko jarri zituen atzean, ni tamainaz txikitu edo handituta. Tamaina onean ikusi arte ez nintzen jabetu ni nintzenik. Oraindik ez dut sinistu guztiz, kartelekoa ni naizenik. Baina oso gustura nago.

**Modelo lan hau esperientzia berria izan da zuretzat?**
Bai. Aurreneko aldia eta primeran pasa dut. Ibai, argazkilaria eta hirurok bakarrik ginen argazki saioan. Orduan jende ezagunarekin bilduta, gustura egiten dira gauzak. Jende berria, edo argazkilari ezezaguna izan balitz, gehiago kostako zitzaidan. Baina ondo, primeran.

**Zinemaldia hastear da, zer plan duzu?**
Ondo jantzita, inaugurazio galara joatekoa naiz. Ekitaldi guztietara joateko asmoa dut. 10-11 film dira, laburmetraiak... Euskal Herrian, euskaraz egindakoak, euskal kultura eta Euskal Herria bultzatzeko handik kanpora. Ekitaldi mordoa egiten dira urtean zehar, baina Zinemaldiak ere bere oihartzuna izaten du hemen.

**Edizio berria estreinatzear den honetan, zer giro bizi duzue?**
Urduritasuna, estreinaldirako guztiak prest egon behar baitu. Halere, konfiantza asko dago, bederatzigarren edizioa baita. Atzetik lan handia egina dago. Orain azken ñabardurak txukundu eta ia nola ateratzen den. Web orria ere egin behar da. Ia egiten dugun. Agian nik egin beharko dut, neure ogibidea baita.

## “Erraza izan zen modelo lana egitea”

**Argazkietarako nola jarri, ze keinu egin... ikasi beharra izango zenuen?**
Oso erraza izan zen. Argazkilariak halako sesio mordoa egin izan ditu. Orduan berak esaten zidan nola jarri. Berak esandakoa egiten nuen. Zerbait gaizki egiten banuen berak nola zuzendu adierazten zidan.

**Errepikatzeko moduko esperientzia izan da hau?**
Bai. Oso gustura egon nintzen, oso ondo pasa nuen. Beraiek ere gustura geratu badira neure lanarekin, hurrengo urterako edo nahi badute, neure aldetik behintzat errepikatzeko moduan bai. Halere, zerbait puntuala izan da hau. Ez nuke honetara dedikatu nahi. Baina aurrerago halako eskaintzaren bat jasotzen badut, ikusiko dut zer egin.

# , eta primeran pasa dut"

**NOAUA! Lan bila joan zinen Bartzelonara?**

**Oinatz Iparragirre Arregi:** Lasarten programatzaile bezala lanean aritu nintzen. Lan kontratua bukatu zitzaidan. Kurrikulumak bidali nituen hainbat lekutara; Madril, Bartzelona, Ingalaterra, Eskozia, baita Italiara ere, han egona nintzen Erasmus programaren bidez. Azkenean iazko otsaila erdialdera Bartzelonako enpresa batetik deitu zidaten. Skype bidez egin genuen elkarrizketa. Eta dena ondo atera zen. Proba moduan, martxoan lanean hasteko esan zidaten. Bartzelonara etorri nintzen, baina gauzak ez ziren oso ondo atera, bi hilabeteren buruan bukatu zitzaidan lana. Baina hona etorri eta inguru hau hainbeste gustatu zitzaidanez, hemen geratzea erabaki nuen. Bila eta bila aritu ostean, uztailean aurkitu nuen berriro lana. Eta lantoki berean jarraitzen dut egun. Gustura.

**Hemen baino zorte hobea izan duzu beraz Bartzelonan?**

Asko mugitu naiz. Kurrikulum mordoa bota dut. Uda ez zen hain ona izan, kurrikulumak bidaltzen aritu nintzelako. Baina azkenean lortu nuen lana eta hor nabil, web orrialdeak diseinatu eta maketatze lanetan.



Web orrialdeak diseinatu eta maketatzen ditu Oinatzek, Bartzelonan.

**Langabezian dagoenari, kanpora joatea aholkatuko zenioke?**

Ni hona etorri aurretik koadrilako batzuk lanik gabe zeuden. Orain badute. Baina beti esan diet, kurrikulumak sorterritik kanpo botatzeagatik ez dela ezer galtzen. Agian zerbait aurkitzen duzu. Gero mugitu egin behar duzula? Hori gero ikusiko duzu, baina itxaroten egon beharrean, behintzat kurrikulumak bidali. Gero jada ikusiko duzu zure bizitza nola moldatu. Mugitu eta saiatu beharra dago.

*"Bartzelonan sumatzen denaren arabera, galdeketan baiezkoa aterako dela iruditzen zait"*

**Bartzelonan lana aurkituta, bertan bizitzen geratzeko asmotan zaude?**

Ez dut honetan askorik pentsatu. Orain uztailera arte dut lan kontratua. Bartzelona oso gustuko dut baina faltan botatzen ditut familia eta lagunak. Halere hau probatu dut eta asko gustatu zait. Orduan ez dakit.

## JENDEA, IREKIA

**Bartzelonako bizimodutik zer duzu atseginen?**

Bartzelona osoa, hiri osoa asko gustatzen zait, asko paseatzen dut hemendik. Jendea ere oso irekia eta jatorra da. Klima ere oso ona da. Oso gustura nago.

**Interes handia dago azaroaren 9ko herri galdeketari begira. Kalean zer giro sumatzen duzu?**

Diada egunean egon nintzen, jendetza zegoen kalean. Baina gero hainbeste tardatu dute kontsulta deitzen eta galdera egiten, giroa zertxobait hoztu dela dirudi. Halere, nik uste hurrengo hilabeteotan giroa berriz berotuko dela. Eta kalean sumatzen denaren arabera, galdeketan baiezkoa aterako dela iruditzen zait.

# Monika Zumeta Bartzelonan izango da "Izenik gabe" dokumentalarekin

Oinatz Iparragirre Arregik, ziur aski beste usurbildar batekin topo egingo du Bartzelonako Euskal Zinemaldian. Monika Zumetarekin hain zuzen. Enara Goikoetxearekin zuzendua duen "Izenik gabe 200x133" dokumentala aurkeztuko baitu Pako Ruiz ekoizlearekin batera, otsailaren 17an, iluntzeko 21:00etatik aurrera Girona zinema aretoetan. Bertan ospatuko dira bederatzi egunetarako iragarriak dauden ekitaldi guztiak. Monikaren aitak Jose Luis Zumeta artistak margolan bat nola sortzen duen azaltzen du "Izenik gabe 200x133" ikus-entzunezko lanak. Joan den Kulturaldian, NOAUA! Kultur Elkartearen eta Usurbilgo Udalaren arteko elkarlanari esker, Sutegin proiektatu zen. Zumetaren sormen lana ardatz duen proiekzioaz gain, "Asier eta biok", "Euskara jendea", "Umezurtzak"... proiektatuko dituzte, otsailaren 13tik 22ra.

Informazio gehiago:
www.euskaletxea.cat/zinemaldia/

**Laguntza biltzen**

Elkarrizketan zehar Oinatz Iparragirrek NOAUA!ri aipatu dion moduan, beste hainbat egitasmorekin bezala, Zinemaldirako diru-iturri beharrean dira. Are gehiago, aurten zinema aretoetara zabaldu baitute "Zinemaldia.cat" ekimena.

Horregatik, dirua biltzeko elkartasun kanpaina bat antolatu dute. Eta Zinemaldiko film guztiak ikusteko 30 euroko bonoak ere salgai jarri dituzte.



Otsailaren 17an emango dute filma.

# 53 lagun, itsasoari begira




**Zumaiatik Oriora ibilbidean 53 mendizale batu ziren.**

Mendizale koadrila galanta bildu zen igandean, Zumaia-Orio arteko ibilbidea osatzeko Andatzako kideek antolatu zuten txangoan. Bilguneak zintzilikatu duen argazkian ageri den moduan, 53 herritar guztira.

Irudi gehiago, Andatzaren web orrian aurkituko dituzue, helbide honetan: andatzamendizale.info

**Belate-Arrraras irteera, martxoan**

